

Amancio Ortega munduko aberatsena dela diote. Ez nau harritzen, ia ezinezkoa baita inor topatzerik inguruan Inditex (Zara taldea) ekoizle erraldoiaren arroparik ez duenik.

Amanciok 14,7 milioi euro dohaintzan emango omen dizkio Osakidetza minbiziaren aurkako ikerketetarako. Osakidetza diru hori hartu beharko lioke ala ez? Garbia al da diru hori ala inperioaren zutabe ustelen kolore iluna zuritzeko ordaina?

Minbiziak guztioi bihotza hunkitu egiten digula badaki Amanciok eta beste askok bezala dohaintza izengabea egin izan balu ez nukeen idatziko zutabe hau, aitzitik marketin erraldoia baliatuz sare pozoitua jaurti dio Osakidetza.

Ugariak dira galziarraren mozkinen jatorri iluna aireeratzen duten ikerketak. 2015eko urrian, Herbehereetako gobernu kanpoko erakunde batek "Ehun akastunak" ikerketan Inditex salatu zuen milaka haur eta nerabe andrazkoren lan eta giza eskubideak esklabotza mailaraino etengabe bortxatzeagatik India eta Bangladesheko haren ardurapeko enpresa azpikontratuetan. 2015eko apirilean, Ehsan Ullah Khan haurren esklabotza aurkako pakistandar liderrak eta Marcha Globaleko buruak mihian lihorik gabe zioen Zarak Asian duen produkzioaren %100 haurren esplotazioan oinarritzen dela. Galziako ehungintzaren deslokalizazioa Asiaraino eraman zuen.

Amanciok, baina, bere holdingaren has-tapenetatik ekin zion ehunka emakume

jostun bidegabeki esplotatzeari azpikontratutako "tailerretan". Egun, dirua agintari eta beldurra ezarrita, menpean du Galizia. "Isiltasunaren Legean" oinarritutako inperioa da nagusi.

Munduko ehungintza merkatuaren jabe ahalguztidun bilakatuta, katuaren atzaparretan sagua nola nahi gaitu erabili, eta dohaintzarekin inbertsiorik merkeena egitera doa: zapalkuntzatik lortu milioi merkeen truke preziorik ez duen izen ona eta ohorea eskuratu.

Baina bada dirurik oparituta ere onartu ezin denik, pozoitutako dirua. Rodrigo Ratorena adibidez, edo narkotrafikotik edo armagintzatik datorrena. Edo haur eta nerabeen esklabotza izerdia darimana... Nago Amancioen dirua onartzea zuritzea baino zerbait gehiago dela. •

Historiaren letra xehea irakurtzen

Maidar lantzi Goienetxe

Bada historia handi bat, eskoletan irakasten digutena, azterketak pasatzeko ikasi behar duguna, zifraz eta datuz betea sarri, biharamuneko erdi atzendua duguna. Bada historia handi bat, egunero hedabide eta sare sozialetan zabaltzen dena, tantaka-tantaka zurrupatzen joaten garena, gehienetan ohartu gabe, zalantzan jarri gabe.

Baina bada letra xehean (eta ez horregatik txikian) irakurtzen den historia ere, edo historiak erran beharko genuke, pluralean. Hauetan bizipenek hartzen dute garrantzia. Herri oso bati eta gehiagori eragin dion gertakari batek (Gernikako bonbardaketa etortzen zait burura, adibi-

dez) pertsona zehatz batengan ze ondorio izan dituen kontatzen dute. 14 urterekin babeslekuan gordeta galtza luze estreinatu berriak zaintzen zituen mutikoaren kontakizuna izan daiteke, edo 80 urte geroago tragedia haren markak soinean dituen bilobarena, ahantzi ez baina gehiegi pisatzen duen motxila utzi nahian ari denarena. Letra xehea ez da ahazten.

Historia hauek argazkitan ere irakur ditzaiegu. Beran, Rosa eta Totonok Errandonea anai-arrebak ordaindu ezin den lana egiten ari dira urtetan herriko argazki eta kontu zaharrak bilduz. Artxiboa zabaltzen segitzen dute, gaur egungo istorioekin. Gustatzen zaielako egiten dute, eta mate-

rial guzia konpartitzen dute, Beragureherria.com atarian zintzilikatuz edo norbaiti bere arbasoen argazki bat oparituz. «Garai batean, argazkiak batez ere aberatsen kontuak ziren eta argazki batek oroitzapen aunitz pizten ditu», adierazi dio Rosak "Ttipittapa" aldizkariari.

Etxean bertan, kutxa ezkuturen batean galduta ditugun altxorren balioaz ohartarazten gaituzte Rosak eta Totonok. Agian gaur egun klik egitea hain erraza delako, edo dena eskura dugulako, ez ditugu hain ongi zaintzen altxorrak. Egia erran, nitaz ari naiz, armairu handi baten garbiketa egin berri baitut. Baina kasu honetan singularra plurala dela uste dut. •